

EHUko irakasle-ikertzaile hasiberrien garapen akademikoa: garapen-markoa eta sostengurako gakoak

Tesiaren egilea: Aitor Mendia-Urrutia

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Saila/Institutua: Didaktika eta Eskola Antolakuntza

Doktorego-programa: Hezkuntza: Eskola, hizkuntza eta gizartea

Jakintza-arloa: Pedagogia

Tesi-zuzendaria: Itziar Rekalde-Rodríguez eta Esther Cruz-Iglesias

Tesiaren laburpena:

Europako unibertsitate-sistema belaunaldi-aldaketa baten aurrean dago eta Euskal Herriko Unibertsitatea ez da salbuespena. Horren ondorioz, datorren hamarkadan zehar irakasle-ikertzaile hasiberrien kopurua nabarmen haziko da, goimailako hezkuntzaren errealitatea guztiz eraldatuz. Beraz, unibertsitatea egokitu egin behar da hasiberrien indukzioa eta garapen profesionala ahalik eta egokienak izan daitezen. Hasiberriek izaten duten formakuntza pedagogiko urria kontuan izanik, egokitzapen horren barnean unibertsitateak bermatu behar du garapen-prozesuan zehar laguntza eskaintzea. Baina, nola egin dezake hori unibertsitateak?

Garapenean laguntzeko, lehenik, nora iritsi behar den zehaztu behar da. Behin helmuga zehaztuta, bertara iritsi aurretik eman beharreko pausoak zehaztu behar dira. Asmo horrekin nazioartean hainbat garapen-marko sortu izan dira. Baina unibertsitate bakoitzaren kasuan irakasle-ikertzaileek bizi duten errealitatea ezberdina da, erakundearen kultura profesionalak eta tokian tokiko legeek haien jarduna baldintzatzen dutelako.

Horregatik, tesi-lan honetan EHUko irakasle-ikertzaile hasiberrien jarduna ezagutu eta ulertu nahi izan ditugu, haiei egokitzen zaien garapen-marko bat sortu eta garapena sostengatzeko gakoak eskaini ahal izateko. Hasiberrien jardun akademikoa aztertuta, garapena bi zutarri nagusiren arabera gauzatu behar dela ondorioztatu ahal izan dugu: irakaskuntza eta ikerkuntza.

Irakaskuntzari dagokionez, garapenak hiru arlo nagusi izan behar ditu. Alde batetik, norbanakoak bere irakaskuntza era koherentean eta autonomoan planifikatzea lortu beharko luke. Bestetik, irakaskuntza-jarduerak ikaskuntza sakona ahalbidetu beharko lukete, ez soilik ideien erreprodukzioa. Azkenik, irakaskuntzari dagozkion erabakiak era funtsatuan hartu beharko lituzke, literatura zientifikoan oinarrituta eta ikaslearen irteera-profila gogoan hartuta.

Ikerketari dagokionez, beste hiru garapen-esparru nagusi zehaztu ditugu. Lehenik, ikerketa ulertzeko era jakin bat lortu behar lukete, non helburu nagusia honako hau izango baita: gauzatzen duten ikerketaren bidez inpaktua izatea, ezagutza berria sortuz. Bestetik, ikerketa-jardunari dagozkion ardura ezberdinak hartu behar lituzkete, finantzazioa lortzetik hasi eta proiektu txikien koordinazioraino. Azkenik, ikerketa argitaratzeko eta hedatzeko iturriak menderatu behar dituzte, haien lana era aipatuz zabalatzeko.

Arlo horiek hasiberriei haien garapena bideratzeko noranzkoa eskaintzen diete. Baina ezin da garapenaren ardura norbanakoaren borondatearen eta gaitasunen baitan utzi. Horrenbestez, tesi honek unibertsitateari hainbat gako eskaintzen dizkio, hasiberrien garapena era egokian sostengatu dezan. Esaterako, fokua ez da metodoetan jarri behar, jardun akademikoaren helburuetan baizik; ez da sostengua norbanakoarengana soilik bideratu behar; kultura-aldaketa bat sustatu behar da unibertsitatean, eta eskaintzen zaien formakuntzak ebidentzietan oinarritua eta errealitatera transferigarria izan behar du.